

Internauta euskalduna globalizazioaren garaian

Karmele Perez Urraza

UPV/EHUko irakaslea

Globalizazioari esker trukaketa ekonomikoak zein informatikoak mundu mailan ematen dira, eta, une berean gertatzen dira horiek. Globalizazioari esker *Sare-gizartea* deritzona nagusitu zaigu: gizarte-antolakuntzak eta gizakien arteko erlazioak elkarreragiten dute: sare informatikoen bidez gauzatzen dira, informazio-aren teknologiak erabiliz, eta, bereziki, Internet sarea erabiltzen da, horretarako.

Sare-gizarte hori “proiektuen bidez” antolatzen da, bakarkako zein taldeko proiektuen bidez, eta modu autonomoan, Estatuaren antolaketarekiko edo erakunde bertikalekiko. Manuel Castells soziologoarentzat¹, prozesu horiek, modu horietan eraikiak direla, askatasun- eta autonomia-iturri geroz eta handiagoak bilakatzen dira, pertsona/kolektibitatearen arteko dikotomia bereizgarri baino osagarri baita.

Sare gizarte horretan, *Ziberkultura* nagusitu da kulturalki berba eginda:

- denbora zein leku-erreferentzien aldaketa ekarri duen kultura, sarearen komunikazio-logikaren eredupean eta hipertestoaren arabeko erlazio-kode berriarekin gauzatua da.
- espazialki tokietatik fluxuetara aldaketa eman dela ikusten da,
- eta denborari begiratuta, komunikazio atemporal da.

¹ Castells, M. *La Galaxia Internet*. Barcelona: Areté, 2001.

Sare gizarte horretan informazioaren emailearen eta hartzailearen errolak aldatu agertzen dira -lehen zentzu bakarrekoak eta hierarkizatuak goitik behera, orain horizontalki ematen dira-. Informazioa heltzeko bidea, bestalde, ez-lineala da, non testua, soinua eta irudia integraturik agertzen diren.

Horregatik, oraingo gizartearen berrikuntza ez datza teknologia berri baten sorkuntzan soilik. Castells soziologoaren tesietan² oinarriturik hori baino garrantzitsuago da, oso epe laburrean botere eta produkzio-sistemaren esparru gehienetara zabaldu dela, eta, izaera orobatzaileaz blaitu direla mundu osoko gizarte gehienak, gurea barne. Teknologia berrien sartze prozesua hurbiletik eta egunerokotasunean ezagutu dugu maila lokalean, baina ikuspuntu sozial, kultural eta politikotik begiratuta, mundu-mailan ematen den iraultza teknologikoa eta soziala dela onartu behar da. Hemen, azpimarratzekoa da bere izaera orobatzaileak (totalizatzaileak) berdindu eta bateratu dituela produkzio-sistema eta merkaturatze-sistema, maila lokalean zein globalean, Globalizazioak gizarte guztiak ukitu ditu, garatuak eta ez-garatuak –hauek besteen menpe bizi behar direlako-, eta gizakiaren esparru guztiak -indibiduala zein kolektiboa-, bizitzaren adierazpen xumeetatik konplexuetara.

Informazioaren paradigma berri honetan, informazioa sarearen bidez aurkitu eta jasotzerakoan gure hizkuntzan idatzita datorrena, gero eta gehiago da. Egunero behar dugun horretarako gure hizkuntzaz baliatu gintezke eta baliatzen gara euskaldunok. Horrela ikusita, Internet sarea kalterako baino mesederako izan da euskaldunontzat. Castells-en tesiarekin bat etorritik, *globalizazioak* dakartzan berdintasun eta estandarizazioaren aurrean gizakiak zerbaitekin identifikatu beharko du bere burua.

² Castells, M. *La era de la información*. Madrid: Alianza Editorial. 1997.

Globalizazioarekin batera bertakoaren (lokal) aldarrikapena eta bertakoa den horrekiko atxikimendua areagotuko dela dio Castells-ek bere idazlan soziologikoetan. Gure kasuan, ezagutzen ditugun eta, neurri batean, kontrola ditzakegun eta ersoso sentitzen garen eremuetan txokoratu egiten gara. Bertatik erakitzen dugu gure errealitatea eta horrek berrindartu egiten du hurbileko taldeen (lagunen, familien, auzoen, eskualde zein herri nortasunaren...) eta tokian tokiko identitatearen beharra.

Patxi Juaristi-k³ dionez aurrerapen teknologikoei esker, hizkuntzen arteko mugak gainditu daitezke, edozeinek plazara dezakeelako nahi duen mezua eta edozein unetan. Horri begira, berak uste duenez, zenbait arlotan homogeneotasun kulturalari aurre egiteko “ahuleziak direla” onartu behar den moduan, indarberritzeko aukera ugari ere agertzen zaizkie euskal hiztunei. Baina, horretarako, gure ustez, oinarrizkoa da digitalki alfabetatua egotea eta idazteko trebetasunak eskolatik bertatik digitalki lantzea, zeren euskara eta gure kultura galtzeko arriskuan gaude sareak markatzen dituen berrikuntzei “digitalki” erantzuteko gai ez bagara.

Punta puntako euskarri digitaletan aritzeak, eta horien bidez sorkuntzan aritzeak erabiltzailearen parte hartze dinamiko eta sortzailea bultzatu behar du, pertsonaren garapen kognitibo eta afektibo-soziala sustatuz (multimedien erreproduktore hutsetik izatetik digitalki sortzaile sutsua izatera pasatu behar dugu euskaldunok). Gazte euskaldunaren kasuan ikaskuntza digitala eta, gainerakoa, erraztu egiten dira, ezagutza sortzeko bideak bere bizitzaren egoera errealera transferitzeko motibatzen dugunean.

³ Juaristi, P. *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*. Bilbo: Euskaltzaindia, BBK Fundazioa. 2011. 88. orria

Gazteari aukera ematen zaionean berak dakiena publikoki agertzeko, ezagutza horren gainean gogoeta, eztabaida eta defentsa egiteko aukera ematen zaionean, eta eraikitako ezagutza horren forma berriak -pertsonalak zein kolektiboak- aldatu, sortu, eta aztertzeke aukera ematen zaionean. Horrela, bere kultura hobetu egiten da, eta, aldi berean, bera kide den talde soziokulturalarena.

Euskaldun gisa gauza txiki esateko daukat. Eta txiki horretatik abiatuko naiz. Eta zergatik? Ba, gure txikitasun horretatik abiturik mundu mailako handitasunera heltzeko aukera dugulako. Handitasun horretan mugitzen gara eta murgiltzen gara, batez ere, gazteak. Eta nola? gure esku dauden oinarrizko tresnen erabiltzaile izanik, horrela, sinpleki. Kasu honetan blogak erabili izan ditugu, baina badakigu blogari dena sarean nagusitzen ari diren gainontzeko plataforma askoren erabiltzaile ere bada, edo behintzat erabiltzaile potentziala da. Horrekin esan nahi dut, euskaldunok, dagoeneko puntako teknologiak erabiliz munduan gaude, edozein gizarte garatua egon litekeen (daiteken) moduan, ez gutxiago. Informazioaren gizartean murgiltzen gara, guk sortzen dugu ezagutza bilakatzen dugu, eta guzti hori euskaraz.

Ahaztu barik hedabide erraldoien pisua eta duten kontrola, software askearen hedapena eta teknologia berrien zabalkunde eta merkatzearen ondorioz, plataforma berriek (blogeak, wikiek, informazioa partekatzeko plataformek...) inoiz baino dinamismo handiagoa erakusten dute, hemen zein beste leku batzuetan. Modu honetan, geuk sortzen ditugun produktu gehienetan ohikoa ez den euskal sentsibilitaterik edo euskal munduarekiko loturarik agertzeko gai izango gara.

Ezin da ukatu: mundu globalizatua egon badago, eta horrek eragina du guztiongan. Baina globalizazioa aurpegi biko txanpona da.

Globalizazioak uniformizazioa ekar lezake: hots, berdintasuna eta asimilazioa, kultura hegemonikoen partetik. Hori kaltegarria izan liteke guretzako. Zentsu horretan erne!

Baina globalizazioak bere alde ona ere badu unibertsaltasunera iristeko aukera. Unibertsaltasunera iristeko bide errazak eta arinak zabaltzeko sekulako aukera dugu orain, Web 2.0 filosofiak dakarren aplikazio sorta berria erabiliz gero. Hala ere, unibertsaltasuna benetakoa izan dadin, partikulartasunetik abiatu behar da. Eta eginkizun horretan, ez dago dudarik, pertsonak, taldeak zein erakunde lokalak haustura digitalaren kontrako ezinbesteko dinamizatzailleak direla.

Euskal kultura mundu globalizatuan zabaldu egiten dugun heinean, nahiz hemendik sortua nahiz kanpoan gaudenean sortua izan, euskara erabiltzen badu, gurearekin konektatzen dugu, hots, euskaldunak direnekin, eta hori da garrantzitsuena. Horrela, munduan ba dugu beste leiho bat: euskaraz sortzen dugunarena.